



Izenburua	Euskal Herriko udalen hizkuntza-politikaren ezaugarri nagusiak. 2006-2009
Egilea	Iñaki Lasa Ustariz
Data	2012/03/22

aurkibidea

1. Sarrera	03
2. Lau zutabeak	05
3. Hizkuntza-politika udalerrietan	07
4. Irteera	13
5. Baldintzen hobekuntza	15

1. Sarrera

Lehenengo eta behin, hizkuntza-politikaz arituko garen neurrian komenigarritzat jo dugu hainbat ideia azaltzen edota argitzen hastea. Hona hemen:

1. Argitu eta adostu behar dugun lehen gauza da normalizazioaren kontzeptua nola ulertzen dugun. Izan ere, normalizazio hitza askotan erabiltzen badugu ere, erabiltzaile bakoitzarentzat adiera desberdinak izan ohi ditu. Batzuentzat, Nafarroako Presidente ohia den Miguel Sanz jaunarentzat, esate baterako, euskara normalizatua dago jada Nafarroan, beste batzuk ordea, elebitasun desorekatuari deitzen diote normalizazioa, “ez inposatu ez eragotzi” kontzeptuaren atzean horixe ezkuta liteke, azkenik, elebitasun orekatua ere izan da normalizaziotzat joa hainbaten aldetik.


Gure kasuan, azken urteotan honako definizio hau erabili dugu euskararen normalizazioa definitzeko:

Euskal Herriko herritar guztiontzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izatea da euskararen normalizazioa.

Beraz, testu honetan zehar normalizazioaren kontzeptua erabiltzen den guztietan adiera horrekin erabiliko da.

2. Euskararen normalizazioa, beraz, prozesua da, izaera politikoa eta soziala duen prozesua alegia. Neurri handi batez, prozesu iraultzailea da hitzaren esanahi etimologikoan, errealitate politikoa, soziala eta pertsonala irauli beharra dagoelako helburura iritsiko bada. Gainera, gure kasuan, urte askotan zehar garatu den hizkuntza-politiken ondorioz ezarri den iraultetari aurre egin behar diogu kontrako bidea eginez, hau da, euskararen desagerpena bilatzen duten indarrak gelditu eta horien gainetik euskararen normalizazioa bilatzea da gure lana.
3. Hizkuntza-politikak kasu guztietan sistema bati eragiten dio, partzialki aplikatuta ere sistema osoan eragingo du. Eragina onuragarria edo kaltegarria izan daiteke eta kasu batzuetan neurri berberak onurak eta kalteak izango ditu batera. Hori dela eta, etengabe aztertu eta ebaluatu beharko da egiten dena hizkuntza-politikatik espero duguna benetan lortzen dugula ziurtatzeko.
4. Hizkuntza-politika beti dago, maiz kontrakoa pentsatzen bada ere, saihestu ezina da. Euskararen alde egiten denean hizkuntza-politika dago baina, egiten ez denean ere, hizkuntza-politika egiten dugu berdin-berdin. Bestalde, azpimarratu beharra dago hizkuntza-politika ez dutela instituzioek bakarrik egiten, mota guztietako eragile politikoek eta sozialek, sindikalek barne, badutela haien hizkuntza-politika nahiz eta maiz oharkabean pasatzen den. Izan ere, ohitura dugu euskararen aldekoa soilik horrela izendatzeko. Ikuskera horren gatibu gara euskararen asimilazioa eta desagerpena dakarten hizkuntza-politikak, hegemonikoak, gaur egun, neutrotzat jotzen direlako.

5. Azkenik, egin duguna eta egin behar genuenaren artean ez dago adostasunik, egin behar dena eta egiten ari garenaren artean ez dagoen bezalaxe. Edozein kasutan, euskararen normalizazioa prozesua den neurrian argi dago denbora kontzeptuak esanahi berezia duela. Izan ere, horrelako prozesu bat arrakastatsua izateko epe muga zehatzak izan behar ditu, ezin da "sine die" luzatu. Gaur egun, ez dugu epe luzeko eta ertaineko helburu adosturik, plangintzak ez dira helburu handien baitan kokatzen eta lekuan lekuko epe laburreko plangintzak nagusitzen dira, plangintzak daudenen kasuetan, bederen. Hizkuntza-politika politika planifikatua da edo ez da eta horregatik, behar beharrezkoak dira koordinazioa eta helburu eta epe zehatzak. Gauzak progresiboki, arian-arian, emeki-emeki egin behar direla esatea ezer ere ez esatea da.



Absolutoak	1991	1996	2001	2006
EAE	419.221	448.200	530.946	557.604
IEH	69.132	56.146	54.648	51.762
NFK	40.167	42.077	48.341	56.384
EH	528.520	546.423	633.935	665.750
Portzentualak				
EAE	24,1	25,3	29,4	30,1
IEH	33,1	26,4	24,7	22,5
NFK	9,5	9,6	10,3	11,1
EH	22,3	22,5	25,4	25,7

2. Lau zutabeak

Lau zutabe ditu hizkuntza-politika egokiak. Laurak dira beharrezkoak, laurak orekatu eta harmonizatu behar dira lekuan lekuko politikan eta laurak garatu behar dira egoki Euskal Herri osoan. Egoera sozio-linguistikoa edozein izanda ere, laurak garatu behar dira orekaz beste gauza batzuen artean laurak sistema oso bat sortzen dutelako eta batean edo bestean huts egiteak sistemaren beraren ahultzea dakarrelako.

1. Corpus juridikoa

Euskara normalizatzeko ezinbestekoa da araua. Araua erabili behar da euskara normalizatzeko. Instituzio bakoitzak dituen eskuduntzen barruan kokatu behar da horien sabairaino eramanez. Arauak hizkuntza-eskubidearen bermea ekarri behar du, herritarrek euskara erabiltzeko eta ikasteko duten eskubidea bermatu behar du alegia.

Zentzu horretan, zehatza behar du izan interpretazio okerrak edo interesatuak ebitatzeko. Izan dugun esperientziak garbi adierazten digu erredakzio lausoek ez dutela jokatzeko euskararen alde maiz egiten diren interpretazioek hizkuntza hegemonikoaren alde egiten dutelako.

Araua dinamikoa izango da. Hau da, bere barruan egoera aldakorraren aurrean egokitzeko mekanismoak izan behar ditu arauen zahartzea ebitatzeko eta erredakzio zaharkituek ez jokatzeko normalizazio-prozesuaren kontra.

Arauek helburu eta epe zehatzak definitu behar dituzte eta kasu guztietan ebitatu behar dira progresiboki, arian-arian eta gisa bereko esamoldeak bai eta aditz ebaluatu ezinak ere, sustatu, lagundu, bultzatu... etab.

Azkenik, arau hausleek zehapenak jaso behar dituzte behin egokitzeko eskainitako denbora igaro ondoren ez bada helburua betetzen.

2. Plangintza sistema

Hizkuntza-politika definizioz politika planifikatua da. Planak behar dira Instituzioen eta gizarte eragileen barne jardunak euskalduntzeko, planak behar dira gizarte bizitza euskalduntzeko, sektoreak euskalduntzeko. Plana behar da Euskal Herria bera euskalduntzeko, nola iritsi behar dugun euskararen normalizaziora planifikatu behar den zerbait da.

Paragrafoa alderantziz edo negatiboki irakurtzen badugu erraz konturatuko gara plan guztiak behar ditugula ezinbestekoa delako denak harmonizatzea. Planifikazio estrategiko nazionalak huts egiten badu ez dugu jakingo gure herriari zer dagokion prozesu orokorrean eta horrek desorekak ekarriko ditu eta neurri handi batez, egiten diren ahaleginek lor dezaketen eraginkortasuna txikitzea. Berdin gertatzen da sektoreak aztertzen baditugu. Unibertsitateak ez badu mediku euskaldunak sortzen Osasunbideak eta Osakidetzak ezin izango ditu kontratatu. Osakidetzak edo Osasunbideak ezin izango dute haien jarduna euskaldun euskaldun ez badute. Laburbilduz, gizartea sistema den neurrian ikuspegi holistikoa izan behar du, gizartea eraldatu nahi duen politikak. Planifikazioak bakarrik eman diezaiolke arazo honi irtenbidea.

3. Baliabideak

Ezin da hizkuntza normalizatu baliabiderik eskaini gabe. Baliabide pertsonalak, administratiboak eta ekonomikoak. Edozein kasutan horrek ez du esan nahi hizkuntzak diruz normalizatzen direnik. Oreka bilatu behar dugu araua eta baliabidearen artean. Oro har, esan liteke, arauak eskubideak bermatu behar dituela eta urratzailea zigortu eta baliabideak epeak laburtzeko erabili behar direla bai eta, bestela ziurtatzerik ez legokeen zerbitzua edo produktua herritar euskaldunen eskuetan jartzeko.

Beraz, behar dena inbertitzea bezain garrantzitsua da ongi inbertitzea.

4. Herritarren sostengua

Herritarrek ez badute nahi ez da euskara normalizatuko. Behar beharrezkoa da herri gogoa, motibazioa, sua, amarena eta aitarena, hizkuntza normalizatuko bada. Kontuan hartu behar dugu, euskararen normalizazioak berez dakartzan nekeak, sozialak eta pertsonalak gainditu ahal izateko giro sozial ego-kia behar dela eta hori etengabe elikatu behar dugula.

Gizarteak aldakorak dira oso eta denbora faktoreak ez du jokatzen euskararen normalizazioaren alde. Normalizazio-prozesu bat ehunka urtetan luzatzen bada zaila izango da oso bukaerara iristea, ezinezkoa dela esan liteke. Denbora faktorea oso kontuan izan behar dugu eta hausnarketa horrek erlazioa zuzena du arestian esan dugun guztiarekin.

Mota guztietako motibazioak landu behar dira etengabe, identitarioak eta pragmatikoak, berezkoak eta eragindakoak, arrazoian oinarritutakoak eta emozioetan. Den dena beharko dugu, denboran mantendua normalizazio-prozesua itzulerarik gabeko puntu horretaraino eramateko.

Lau zutabeak kontuan hartuta gaur egungo egoera zein den azaldu beharko bagenu ez genuke baikortasunerako aukera askorik izango. Izan ere, euskararen normalizazioarekin zerikusia duen arkitektura juridikoak ez du ezaugarri egokirik eta alorren batean eredu berritzaileak plazaratu direnean atzera-pausoak etorri dira berehalakoan, hizkuntza-komunitatearen zatiketa administratiboak ikaragarri zailtzen du Euskal Herri mailako plangintza estrategikoa eta plangintza sistemak hedatuta badaude ere harmonizazio falta nabarmena da oso, esleitzen diren baliabideak kantitatez ez dira egokiak eta ez dira egoki inbertitzen eta azkenean, gure hizkuntzak herritarren sostengua badu ere zailtasun handiak ditugu aldeketasuna eraginkortasun bihur dadin.

Lema aldaketa behar dugu.

3. Hizkuntza-politika udalerrietan

Euskararen gizarte erakundeen Kontseiluak tokian tokiko hizkuntza-politika aztertu nahi izan du udalei laguntzeko helburuarekin. Udalak herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izanik aplikatzen dituzten mota guztietako politikek eragin zuzena dute bai gizarte bizitzan bai eta herritarrengan ere. Bestalde, instituzio irekiak dira eta errazagoa izan ohi da elkarlana.

Dagoeneko bi aldiz egin da azterketa, 2006an eta 2010ean, bi kasuetan legealdien bukaeran eta hauteskunde prozesuak baino lehenago udal-taldeek haien politika garatzeko aukera izan zezaten eta aldaketak, aurrerapausoak zein atzerapausoak, aztertu ahal izateko.

Kasu guztietan, datu objektiboak jaso dira eta ez da azterketa kualitatiborik egin. Hau da, ordenantzarik dagoen edo ez aztertu dugu baina, ez dugu haren egokitasuna epaitu. Aurrerago egin nahiko genukeen zerbait da azterketa kualitatiboa. Datuak, beraz, laguntzaile sare garrantzitsu baten bitartez jaso ditugu eta behin datuak eskuratuta Udal guztiei aukera eman zaie datuak zuzenak ote ziren ziurtatzeko jaso dugun dokumentazioaren berri eman zaielako.

2006an 66 izan ziren aztertu ziren herriak, osotara 2 milioi pertsonengan eragina duten politikak izan ziren aztertuak, herririk populatuena aukeratu zirelako azterketarako. 2010ean, ordea, 116 izan ziren aztertu zirenak. Euskal Herri osoko herriak.

Datuak sarean eskaini ditugu aztertu nahi dituen interesatu ororen eskuetan inork azterketa partzialak egin nahi izanez gero horretarako aukera izan dezan. Kontseiluak egindako azterketatik honako ondorio hauek atera daitezke:

1. Desberdintasun txikiak bi azterketen artean

2006an eta 2010ean egindako azterketen artean dauden desberdintasunak txikiak dira eta esan liteke, oro har, hizkuntza-politikak ez duela aldaketarik izan 4 urte horietan.

2. Hizkuntza-politikak izaera asistentziala du

Araua eta baliabidearen artean desoreka nabarmena dago. Hau da, errazago hartzen dira izaera asistentziala duten neurriak. Udalei errazago suertatzen zaio egin dadin baliabideak eskaintzea arautzea baino. Eraginkorra izan nahi duen hizkuntza-politika publiko orok bi motatako neurriak garatu behar ditu: sustapenerako neurriak eta hizkuntza-eskubideen bermerako arauzko neurriak. Lehenengoak diru laguntza eta zerbitzu eskaintza dira nagusiki eta bigarrenak erabaki mailako neurri erregulatzailerik eta betearazleak. Udalek lehenak errazago inplementatzen dituzte borondatean oinarritzen direlako eta horiek ez gauzatzea ondoriorik ekartzen ez duelako.

Laguntza bidezko neurriak portzentaje altuagoetan hartzen dira. Hauek ordea, ez dute derrigorrik ezartzeko, normalizazioaren helburuak azkartzeko neurriak direla esan liteke. Zoritxarrez, soilik horrelakoak hartuz nekez lortuko da hizkuntza-eskubideen bermea. Izan ere, eskubideak arauz bermatu behar dira, herritarrek ezinbestekoa dute marko juridikoa urraketan aurrean helduleku legala izan dezaten. Neurri mota hau maila apalagoan hartzen dute udalek.

Errazen arautzen dena idatzizkoari dagokiona da (%83,3 eta %78,7 artean), nekezago azpikontratazioei dagozkien irizpideena (%42 eta %24,2 artean) eta ia ez da erabakirik hartzen udaleko langileei eragiten dienean (%25,7 eta %13,6 artean). Azken honi dagokionez, 3 lanpostu konkreturi 4. HE ezartzeko neurria portzentaje altuagoan hartzen bada ere, ez da %65a gainditzen: idazkaria %62,1; kontuhartzailea %59,1; arkitektoa %45,5.

3. Ezagutza tasak definitzen du hizkuntza-politika Hego Euskal Herrian

Hizkuntza-politika egokiak definitzen dituena hizkuntzaren estatusa baino ezagutza tasa da. Zenbat eta ezagutza tasa altuagoa, orduan eta hizkuntza-politika egokiagoa aplikatzen da. Egon badaude salbu-espenak Baztan %91,4 eta Zornotza %74,7 ezagutza tasa izanik nota eskasa dute eta Lesaka, %93,3rekin ere, ez ditu lortzen berez legezkiokkeen puntuak

4. Estatusa ez da determinantea hizkuntza-politika definitzeko

Estatusari dagokionez, espero zitekeenaren kontra, ez du hizkuntza-politika definitzen. Bereziki deigarria da euskara ofiziala den lurraldean kokatutako udalerriak zerrendaren azken postuetan ikustea:

- 46. Santurtzi
- 47. Sestao
- 58. Barakaldo
- 60. Portugalete

Herri hauen biztanle kopuruaren batura 222.553 da. Zonalde ofizialean azken postuetan nagusiki herri bizkaitarrak (12) eta arabarrak (3) daude. Nafarroako herri bat ere badago, Baztan. Hauen artean 2 hiriburu ditugu, Bilbo eta Gasteiz.

5. Oro har, hizkuntza-politikak ez dira eraldatzaileak

Esan daiteke, oro har, hizkuntza-politikak ez direla eraldatzaileak: errealitate soziolinguistikoari men egiten diote errealitate hori aldatzeko neurriak proposatu eta indarrean jarri beharrean. Horrek, alde batetik, herritarren hizkuntza-eskubideak kopuruaren baitan aitortzea dakar nolabaiteko zonifikazioa ezarriz.

6. Plangintza kopuruak aurrera egin du

Plangintza ezinbestekoa da prozesuak garapena izan dezan eta etengabeko ebaluazio eta egokitzea izan behar ditu ardatz, aurrerabidea egin dadin. Herriari begira plan orokorren garrantzia aski ezaguna da. 2006an aztertutako herrien %62,1-ek zuen plan orokorra eta 2010ean %77,3-k. 10 herri aurrerapausoa eman dute eta herri batek atzera egin du: Baiona, Baztan, Berriozar, Biarritz, Donibane-Lohitzune, Errenteria, Gares, Laudio, Lesaka, Oion eta Santurtzi. Atzera Altsasuk, aurten ez du plan orokorrik. Egun, 15 herri ez du oraindik plan orokorrik: Agoitz, Altsasu, Angelu, Aurrerabia, Atharratze, Barakaldo, Hazparne, Iruñea, Lizarra, Oñati, Pasaia, Portugalete, Trapagaran, Tutera eta Zangoza. EAEko 5 herri, Nafarroako 6 eta Iparraldeko 3. Horietatik, 6 eremu ofizialeko herriak dira eta hiriburu bat dago. Esan liteke, beraz, zentzu honetan aurrerapausoak eman direla eta gero eta gutxiago direla plan orokorrik gabe ari diren herriak.

7. Barne plangintzen ezaugarriak

Herritarrekiko arreta euskaraz bermatzeko plangintza aztertzeke unean bi daturi erreparatu diogu nagusiki. Izan ere, plan hauek egokiak izan daitezten oinarritzko bi ardatz kontuan hartzekeok dira: langile guztiak horietan integratuta egotea, dela euskalduntzeke, dela jarduna euskaraz egiteke: trebakuntza, dokumentazioaren egokitzea... eta epe zehatzak izatea, prozesua denboran betikotu ez dadin. Bi irizpide hauek kontuan hartuz, langile guztiak egotea eta epe zehatzak izatea, alegia plangintzak garatzen ari diren herriak 15 baino ez dira.

8. Kontratazio irizpideak

Langile kontratatu berriak elebidunak izateke erabakia 9 herritan soilik egotea bereziki kezkarria da. Langile berriak kontratatzeke erabakia erabaki traktorea da eta eragin biderkatzailea du. Izan ere, behin horrelako erabaki bat indarrean jarriz gero egun euskalduntzean inbertitzen diren baliabide pertsonal eta ekonomikoak ez dira beharrezkoak eta horiek normalizazioko beste zeregin batzuetara bideratzeke aukera ematen du. Gainera, berehala du eragina, lehen momentutik lana euskaraz egiteke gaitasuna duen langilea kontratatuz herritarrak euskaraz artatuak izateke eskubidea bermatzen baita. Horren erabaki emankorra den hau ez da modu esplizituan jasotzen kasu gehienetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan nagusiki bi lege eta dekretu baten aplikazioak definitzen ditu langileen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun datak:

10/1982 Legea, Euskal Autonomi Erkidegoko Euskararen erabilpena arautzen duena.

6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

86/1997 Dekretua , Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Nafarroan nagusiki lege batek eta dekretu batek:

18/1986 Foru Legea, Abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa

29/2003 (55/2009) administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena

Iparraldean ez dago horrelako legerik.

Lege hauek ezartzen dituzten betebeharrak egoera soziolinguistikoak definitzen ditu. Gero eta herri euskaldunagoa orduan eta hizkuntza-eskakizun gehiago langile-taldean. Beti ere, legeak minimoak ezartzen ditu, baina maiz tope gisa hartuak dira. Gauzak horrela, 9 herritan dago ziurtatua langile berri bat lanean hastean elebiduna izanen dela, langile-talde horietan lanpostu guztiek HE eta DD ezarria dutelako: Azpeitia, Bermeo, Gernika, Hondarribia, Lekeitio, Oñati, Ondarroa, Orio eta Pasaia.

9. Ordenantzen auzia

2006an aztertutako udalen erdiak bakarrik zuen udal ordenantza. Euskararen normalizazio-prozesuak bidea erraztuko duen corpus juridikoaren beharra du eta hori udal mailan ordenantza da. 2010ean 8 gehiagok (Azkoitia, Durango, Erandio, Gares, Mungia, Ondarroa, Santurtzi eta Zizur Nagusia). Alegia, 2010ean 42 herrik dute euskararen ordenantza eta horrek 1.296.243 herritarrengan du eragina. Ikus daiteke zentzu honetan hobera egin dela eta udalak neurri juridikoak hartzeke erabakia gero eta hedatuagoa dela. Azpimarragarria da neurri hau hartu gabe duten 24 herrien artean euskara ofiziala den eremuak 16 herri izatea, baita horien artean hiriburu bat egotea ere, Bilbo alegia.

Aipatu bezala, herritarren eskubideei bermea emateko marko juridikoa da ordenantza. Mugak ditu, ordea. Alde batetik, euskararen normalizazioaren beharrek udalen kompetentziak gainditzen dituztelako eta udalek erregulatzen ez dituzten eremuak ere estrategikoak dira. Bestalde, burujabea ez delako: udalaren autonomiaz gaindiko lege markoen arabera jokatu beharra dauka. Ondorioz, ordenantzak berme horretarako tresna izanik ere ez da nahikoa soilik horiek baliatzea hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Hizkuntza-politika orokorra artikulatu behar da eta horretarako plangintza estrategiko orokorra behar da.

Kontuan izan behar da, ordea, Udal mailan indarrean dagoen markoa aski eza izanik ere, eskaintzen dituen aukerak baliatu behar direla herritarren eskubideak babesteko, herritarrak bere eskubideak babesteko orduan helduleku legala izan dezan. Aldi berean, jakin badakigu kasu guztietan arau bidez jasotzen dena ez dela betetzen eta alor horretan zeregin handia dago.

10. Baliabideak

Kontseiluak normalizazioa bideratzeko baliabideen kopuru egokia kuantifikatze aldera, gutxienik aurrekontuen %2a beharrezkoa dela kontsideratzen du. Erreferentzia gisa erabiltzen da kopuru hori.

Aztertutako herrietan aipatu gutxieneko hori gainditzen duten herriak 2006an % 31,8 zen, 2010ean % 34,8. Ez da aurrerapauso esanguratsua eman zentzu honetan. 2010ean 21 herri dira. Hau da, heren batek baino ez du esleitzen euskararentzat aurrekontuaren %2. Gainera, Herri horien artean ez dago hiriburu bakar bat ere.

21 herri horietatik 15 Gipuzkoakoak dira, 3 Bizkaikoak, 2 Nafarroakoak eta 1 Arabakoa.

11. Arnasguneak

“...Euskarazko arnasgunea da demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe ‘etxeko jaun’ sentitzen den eremua... Hizkuntza ahula indarberritu nahi duen erakunde, elkarte edo mugimendu orok berariaz ahalegindu behar du, hortaz, bere jendearentzako ‘arnasgune’ horiek bilatzen eta mantentzen”. (Zalbide, M eta Erize, X 2007).

Aski ezaguna da arnasguneen beharra normalizazioaren ikuspegitik. Aski ezaguna ere udalerrietara joaz UEMAk betetzen duen funtzioa. 3 helburu nagusi ditu UEMAk:

- Udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
- Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea

Mugimendu instituzional honen helburu nagusia, erdarek betetzen dituzten funtzio guztiak euskararako bereganatzea da, hots, gaztelania eta frantsesa ezinbestekoak ez izatea normaltasun osoz bizi ahal izateko. UEMAk kide izateko ezinbesteko baldintza herritarren %70 euskaldun izatea da. Aztertutako 66 herrietatik Bizkaian 7k betetzen du baldintza hori, 15ek Gipuzkoan eta 2k Nafarroa. Deigarria da 24 herritik soilik 3 egotea UEMAREN barruan. Izan ere, arnasguneen artean sinergiak sortzea estrategikoa baita. Euskararen normalizazioak izaera funtzionala du baina, geografikoa ere bai, ez litzateke ahaztu behar hori.

12. Kontratazioak eta zeharkako eraginak

Euskaraz bizi ahal izateko kontratatzen diren zerbitzuetan, zein esleitzen diren dirulaguntzetan hizkuntza-kuotak ezartzea estrategikoa da. Kuotak ezarriz gizarteari helarazten zaion mezua benetan garrantzitsua da normalizazioarekiko, herritarren eta, oro har gizartearen portaerei zuzenean eragiten baitie.

Herritarrei zerbitzua eskainiko diotenak enpresa pribatuak izango badira ere, udalaren ardurapeko zerbitzu publikoa den neurrian udalak bete beharreko neurri berberak ezarri behar zaizkio herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Baina ez hori bakarrik, kontratatzen dugun enpresari hizkuntza-kuotak ezarriz lana euskaraz eginen dela eta eskubideak bermatuko direla ziurtatzera jotzeaz gain, alor sozio-ekonomikoan euskaraz lan egin dadin eragile aktibo bilakatzen gara, euskarari balio pragmatikoa eta erreferentzialtasuna emanez.

Diru publikoarekin ekimen konkretu zein jardun orokor bat lagundua izateko hizkuntza-kuotak ezartzean, herritarrei bi mezu garrantzitsu helarazten zaizkio. Alde batetik, laguntza publikoz antolatzen den oro herritar guztiei zuzendua behar duela izan eta zentzu horretan euskaldunak ez direla diskriminatuko. Bestetik, euskararen balio eta erreferentzialtasuna, horrelako neurriek euskara prestigiatzearekin batera balio pragmatikoa eransten diote eta.

Ikus dezagun garrantzi bereziko neurri hauek nola hartzen diren udaletan. Azpikontratazioei dagokionez, aztertzen diren 3 kontratazioen kasuetan euskararen inguruan irizpiderik ez du jartzen udalen erdiak baino gehiagok:

Herritarrekiko harreman zuzenei dagokionez, bi azpikontrata nagusietan zerbitzua elebiduna izan dadin % 42,4k baino ez du hartu erabakirik (2006an %40,9).

Udalari aholkularitza juridikoa edo teknikoa eskaintzen dioten zerbitzu enpresek egin beharreko txostenak euskaraz helarazteko erabakia %25,4k baino ez du hartu (2006an %24,2).

Herritarren aholkularitzarako zerbitzu espezifikoek (emakumeak, langabetuak, adineko pertsonak gazteak, kontsumitzaileak...) udalerrian eskaintzen duten zerbitzua euskaraz eman ahal izan dezaten %39,4ak.

Erabaki mailari dagokionez agerikoa da neurriak ez direla modu masibo batean hartzen. Baina gaia kezkarriagoa bihurtzen da behaketaren alorrera jotzean. Udaletako azpikontratazio ohiko bat obrak dira. Bada, obren karteiei dagokionez datua benetan beltza da eta 2006arekiko atzera pausoa adierazten du. Neurketa egitean herri bakoitzean 3 obra txartel behatzea eskatzen zen. Herri guztietan neurketa gauzatu den momentuan obra txartelak behatzea ez da posible izan. Gutxienez 2 obra txartel behatzeko aukera eman duten herri kopurua 48 da. Bada, herri bakar batean ere ez dira behatutako txartel guztiak euskaraz topatu.

Diru-laguntzei dagokionez, bi dira aztertu diren erabakiak. Diruz lagundutako entitateek errotulazioa/hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeko erabakia udalen %48,5ek du, 2006an baino 6 puntu gehiago, baina oraindik ere udalen erdiak ere ez du erabakirik hartu. Udalak diruz lagundutako hedabideetan hizkuntza-kuotak ezartzeari begira, %68,2k ez du erabakirik hartu zentzu honetan. Ulertzen ez den zerbait da, praktikan kontrakoa egiten baitute udalek. Izan ere, 66 herritatik 20tan ez da hedabiderik laguntzen eta 33tan euskara hutsezkoak dira laguntzen direnak. Erdara hutsezkoak soilik 4 dira. Alegia, euskarazko hedabideak diruz laguntzeko praktika hedatua dago, baina praktika hau ez arautzeak arriskuak ditu. Izan ere, erdara hutsezko medioek laguntzak eskatuko balituzte ez legoke markorik horiek kanpo uzteko eta momentuko borondate politikoaren baitan geratuko litzateke euskarazkoak laguntzea.

13. Alderdi politikoaren inpronta

Bai 2006koan bai eta 2010eko azterketetan garbi ikusten da alderdiek ez dutela hizkuntza-politika homogenezorik bermatzen. Izan ere, egoera soziolinguistikoa antzekoa duten eta alderdi politiko berberak kudeatzen dituen udalerrien artean desberdintasun nabarmenak daude. Esan liteke, lekuan lekuko udal taldearen motibazioa edo prestakuntza erabakigarriagoak direla alderdi politikoaren irizpideak baino.

4. Irteera

Hizkuntza-politika berri eta eragingarriaren ardatz nagusiak

Toki-administratibotik administrazio nagusirainokoa, izango da hizkuntza-politika egokia kasu guztietan. Normalizazio-prozesuak hizkuntza-egoera irauli egin behar du eta gizarte osoari eragin behar dio eraginkorra izango bada. Beraz, administrazio guztiak daude inplikaturik. Administrazioen artean eskuduntza banaketa egiten dute gestioaren eraginkortasunaren ikuspuntutik, hori dela eta, administrazio bakoitzak kudeatzen duen eskuduntza horietako bakoitza euskararen normalizazio-prozesuaren zerbitzuan jarri behar du. Guztiz funtsezkoa da era koordinatuan lan egitea eta kasu guztietan prozesuaren beharrek administrazioaren autonomia bezalako kontzeptuen gainetik egon behar dute. Une bakoitzean eta leku bakoitzean dagokiena egin behar da, era planifikatuan eta koordinazio estuan, normalizazio-prozesua ondo joan dadin. Normalizazio-prozesuak Zuzendaritza politikoa izan behar du, organigrama orokorreko gailurrean kokaturik gainerako Saitetan zuzen eta nabarmenki eragiteko modukoa. Zuzendaritza horrek izaera exekutiboa izango du eta bere barnean bi adar: alde batetik, teknikoak, prozesuaren bilakaera etengabe ebaluatzeko, nazioarteko esperientziak aztertu, egokitu eta, hala balegokio, indarrean jartzeko, aplikatzen diren estrategien eraginkortasuna neurtzeko e.a., eta, bestaldetik, soziala, euskararen normalizazioaren alde modu eta forma desberdinez ari diren, taldeen, enpresen eta norbanakoen ahotsa entzun, haien esperientziaz baliatu eta ezinbestekoa izango den ekimen soziala indartu eta erabiltzeko. Zuzendaritza politiko, sozial eta tekniko batek gidatuko du, beraz, normalizazio-prozesua. Esan gabe doa, Euskal Herrian lan egiten duten eta zerbitzua eskaintzen duten mota eta maila guztietako administrazioek, euskaraz lan egiteko, euskaraz funtzionatzeko bete beharra dutela.

Sektoreen eta Sailen artekoa izatea da hizkuntza-politika egokiaren beste ezaugarri bat. Euskararen normalizazioa zeharka landu beharrekoa da: ogasunean, osasunean, herrizaingon, justizian, ekologian, merkataritzan, aisian, industrian, garraioan... Administrazioek diruz laguntzen duten edozein proiektu edo jardun hizkuntza-politika izango dira baldin eta hizkuntza-irizpideak ezartzen badira. Politika guztietatik egiten da hizkuntza-politika eta horrela lan eginez soilik normalizatuko dugu euskara. Politika guztien bitartez egin daiteke hizkuntza-politika. Bestalde, hizkuntza-politikak orekatua izan behar du, hau da, Gizarteko sektore batean soilik eragiten badugu (gazteak, emakumeak, langileak...) prozesua desorekatu egiten da eta eraginkortasuna galtzen du. Adibidez, belaunaldi berriei begirako politika soilak nekez lortuko du normalizazioa, alor sozioekonomikoa ahazten duenak ere ez du lortuko, helduen funtsezko papera ahaztu eta zokoratzen duenak ez du helburua lortuko. Ezinbestean, Sektore eta Sail guztietan eragin behar da alor batean irabazten duguna ondokoan gal ez dezagun. Gizartea unitate konplexu osoa da eta horrelaxe diseinatu behar da politika.

Helburu eta epe zehatzak dituen da hizkuntza-politika egokia. Hizkuntza-politika zerbait baldin bada, politika planifikatua da, ezin da bestela kudeatu, egite hutsak ez gaitu helburura gerturaten. Lehenengo eta behin, azken helburua definitu behar da, definizio argia, gardena, denok ulertzeko modukoa behar dugu, ezinezko sozialik gabea. Helburu horretara iristeko eman beharreko pausoak, horiek eman ahal izateko epeak eta bitartekoak etab unitate zatiezina osatzen dute. Normalizazio-prozesuak diseinu teorikoa izan behar du gauden momentutik hasten dena eta helbururainoko bidea egiten duena. Gizartearen bilakaeraren arabera, berrikusi beharko dira helburuak eta epeak baina edozein kasutan zehatz-mehatz ezagutu behar dira.

Baliabidez ongi hornitua eta egoki kudeatua izan behar du hizkuntza-politikak. Garrantzi handikoa da politika definitzen duten bi elementuen artean oreka bilatzea, hau da, araua eta laguntzaren artean. Euskaldun bat kontratatzeak aukera genuenean erdalduna kontratatu eta gero hura euskalduntzen dirutza inbertitzea alferrikako diru-xahuketa da. Baliabideen bitartez, normalizazioak ezinbesteko dituen bideak azkartzeko eta proiektuak sortzeko aukera bilatu behar dugu, hau da, arauaren bitartez lortzeko aukerarik ez dugun hori lortzeko. Edozein politikatan ezar daitezke hizkuntza-irizpide argi eta

garbiak dituzten diru-baliabideak; beraz, bide horretatik biderkatu egingo da inbertsioen eraginkortasuna.

Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa da hizkuntza-politikarik egokiena. Une guztietan, norbanakoek zer motibazio duten zer oztopo aurkitzen duten aztertu behar da eta, era berean, espazioak euskalduntzeko unean ere, zer motibazio sozialekin egiten dugun topo eta zer oztopo aurkitzen dugun aztertu behar dugu. Ezagutza unibertsalizatzeko bidea jorratzen dugun neurri berean gizartearen espazioak irabazi behar dira erabilera areagotzeko. Autoelikatzen diren bi bide dira, ezagutzeak erabiltzeko aukera irekitzen du eta erabiltzeak ezagutzeko gogoia pizten du baina, era berean, zirkulua ez bada norabide horretan ari inbertitu egiten da joera normalizazio-prozesuaren kaltetan. Norbanakoak motibazioz iristen dira ezagutzara eta horiek sorburu desberdina izan dezakete eta espazioak funtsean hizkuntza-politikaz euskalduntzen dira zailagoa baita motibazio kontzeptua talde bati egokitzea. **Erabilera sozial normalizatua** da kasu guztietan hizkuntza-politikaren helburua. Ez da inoiz ezagutza unibertsala izango bakarrik, ezagutza unibertsalak berez eta bakarrik ez baitu erabilera soziala bermatzen.

Instituzioekin eta gizarte-eragileekin egoki koordinatua behar da hizkuntza-politika. Konplizitatea da harremana hobekien definitzen duena. Normalizazio-prozesuak dimentsio politikoa eta soziala ditu, eta biak egoki uztartzea ezinbestekoa da helburura iristeko. Bi dimentsioak estuki erlazionaturik daude, errealitate sozialek jardun politikoa baldintzatzen dute eta jardun politikoak gizartea eraldatu egiten du; ondorioz, herri-ekimenak eta ekimen politikoak batera ibili behar dute. Edozein kasutan garbi utzi behar dugu, administrazioek bakarrik ezingo luketela euskararen normalizazioa bermatu eta herri-ekimenak ere, bestalde, ezinezko du bere jardun propioz helmugara iritsi. Euskararen normalizazioa bi indarren elkarlan estutik etorriko da kasu guztietan.

Ikuspegi osoa duena da hizkuntza-politika egokia. Sektore batean, alor batean, hartzen den erabakiak eragina du beste sektore edo alor batean, hartzen ez diren erabakiek ere eragina dutela esan behar dugu. Errealitate hori normalizazio-prozesuaren alde erabili behar da ongi definituz trakzio-lana egingo duten erabaki estrategiko garrantzitsuenak zein diren. Horiek ongi kudeatuz prozesua azkartzeko aukerak handitu egiten dira dudarik gabe.

Euskal Herri osoan aplikatzeko moduko hizkuntza-politika behar dugu. Hizkuntza-komunitatea zati-turik ageri da une honetan, administrazio desberdinek zatiturik eta hizkuntza-politika desberdinek zatiturik. Beraz, behar beharrezkoa da komunitate osoari eragingo dion politika egitea. Hizkuntza-politikak izan behar dituen helburu orokorrek errealitate soziolinguistiko bakoitzaren araberako egokitzapena izan behar dute erritmoak eta estrategiak lekuan lekuko errealitatearekin ezkontzeko.

Bestalde, **hizkuntza-politika burujabea** behar du normalizazio-prozesuak, bertakoek bertan sortua, inolako kanpo esku-hartzerik gabea.

Azkenik, esango dugu, politika egokiaren ardatz garrantzitsuenetariko bat **hizkuntza-eskubideen bermea dela**. Egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren hitzunen hizkuntza-eskubideak etengabe urratzen dira egoeraren beraren ondorioz. Hizkuntza-politikak, beraz, eskubide horien betetzea izan behar du helburu eta lehenetasun normalizaziora iritsi baino lehenagoko tarte-helburu gisa.

5. Baldintzen hobekuntza

1. Baldintza juridikoak

Hizkuntza eskubideak ardatz hartzen dituen corpusa behar dugu. Aplikatua izango den lekua abiapuntua hartuta baina, asmo eraldatzaileekin. Hizkuntza-politika osatu behar duen arkitektura juridikoak egoera aldatzea bilatu behar du, beraz, egoera soziolinguistikoa ez da abiapuntua besterik.

Izaera dinamikoa izan behar du, hau da, egoera aldatzen den neurrian automatikoki aldatuko dena lege erreformarik gabe.

Bereziki aipagarria da euskarak behar duen estatusa eskaini behar zaiola, gaur egun oraindik ere ez baitzaio aitortzen Estatuetakoa hizkuntzen duten estatus berbera. Estatus egoki hori lau elementuk osatzen dute: Euskara berezkoa da, bertakoa delako eta bere biziraupena hemen bakarrik ziurtatu daitekeelako; lehentasunezkoa egoera gutxiagotua gainditzeko ezinbestekoa delako ezaugarri hori normalizazioan aurrerapauso esanguratsuak eman ahal izateko; ofiziala, aitortza hori ezinbestekoa delako alor publiko eta pribatuan hizkuntza-politika eragingarriak abiatu ahal izateko eta azkenik, ezagutu beharrekoa, ezagutzaren unibertsalizaziora iristea lehen mailako helburua delako euskararen normalizazioaren bidean.

Bestalde, hizkuntzaren aldeko arkitektura juridikoak gizartearen alor guztietara hedatzea garrantzi handikoa da prozesuaren oreka bermatzeko.

2. Baldintza politikoak

Akordio politiko zabal bat behar dugu euskararen normalizazio-prozesuari urteetan zehar behar duen oreka eta iraunkortasuna eskainiko diona. Akordio horrek izan behar duen orubea definitzen duten bi gaiak honako hauek dira: hizkuntzari estatus egokia eskaintzea eta kanpo esku hartzerik gabeko hizkuntza-politika onartzea. Hau da, Estatuak uko egin behar diote hizkuntza alorrean esku hartzeari eta onartu behar dute Euskal Herriak duen erabateko burujabetasuna egoki ikusten duen hizkuntza-politika indarrean jartzeko.

Akordio politikoak denboran zehar prozesuari oreka eta iraunkortasuna eskainiko dio prozesu luzeetan ohikoak diren aldaketa politikoetatik prozesua salbuesteko.

Abiapuntu gisa, dagoeneko aipatu dugun estatus egokiaren aitortzatik harago, honako neurri hauek ere hartu beharko lirateke berehalakoan inplikaturik dauden instituzioen aldetik:

Irakastereduen gainditzea, belaunaldi berriak oso osorik euskalduntzea ahalbidetuko duen eredu bakarra indarrean jarritz.

- a) Administrazioaren euskalduntzea epe zehatz batean horretarako baliabide egokiak eskainiz eta kontratazio berrietan euskaldunak diren pertsonak kontratatuz.
- b) Instituzio guztien hizkuntza-politikak sail guztietara hedatzea ebatzorgano nagusietatik prozesuak kontrolatuz.
- c) Alor sozioekonomikoaren euskalduntzeari lehentasuna ematea.

Helduen euskalduntzeak duen izaera estrategikoa aitortzea eta beharrezko baliabideak eskaintzea pertsona helduen euskalduntze masiboa ahalbidetzeko.

Euskal Herrian zabaltzen diren hedabideetan erabilera kuotak ezartzea. Ezagutza tasa (euskaldunak gehi ia euskaldunak) gehi 10 puntu portzentual.

Euskararen normalizazioaren aldeko baliabideak nabarmen handitzea.

Unibertsitea eta Lanbide heziketaren eskaintza osorik euskalduntzea.

Euskal Herri mailako planifikazio estrategiko batekin egoki harmonizaturik hizkuntza-politika berria eta eragingarria abian jartzea.

3. Baldintza ekonomikoak

Normalizazioak eskatzen dituen diru baliabideak eskaini behar dira baina, era berean, egoki inbertitu behar dira baliabide horiek.

4. Baldintza sozialak

Euskararen aldeko mugimendua suspertu behar dugu eta gaur egun normalizazioak dituen erronken alde batera lan egiteko ahaleginak egin. Euskararen aldeko mugimenduak, Euskalgintzak alegia, norabide estrategiko berean aritu behar du gaur egungo nora eza gaindituz. Mugimendu zabala, anitza, jendetsua gara, ongi antolatua, pisu sozial nabarmena duena baina, estrategia adostu bateratua ez izateak bere eragina nabarmen kamusten du.

Azkenik, aldaketa sozialak kasu guztietan dira pentsamendu sozial eta indibidualen emaitza. Honaino ekarri gaituzten pentsamendu dominanteak aztertu behar ditugu eta aurrera begira, behar dugun iraultza lortzeko egokiak ote diren birpentsatu. Berdin egin behar dugu motibazioen alorrean ere, kasu guztietan pentsamenduen ondorio direnak. Motibazio identitarioen kaladeroa agortzen edo indarra galtzen ari den honetan motibazio pragmatikoak nola sortzen diren sakon aztertu behar dugu. Izan ere, motibazio pragmatikoak eragindakoak dira kasu guztietan eta ondorioz, nola sortzen diren aztertu eta hizkuntza-politikak horien lanketan zer paper jokatzen duen pentsatu behar dugu.

30 urte gurea bezalako gizarte dinamiko batean tarte handiegia da iraganeko estrategiek funtzionatzen segitzeko. Behar beharrezkoa da, beraz, mugimenduaren eta bere lerro estrategikoen egokitzea etorkizuna irabaziko badugu.

